

BERRI OROKORRAK

2018ko azaroaren 16an 10. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

❖ EUSKARALDIA BADATOR!!!!!!

Irailaren 20an zabaldu zen **AHOBIZI eta BELARRIPREST izen-ematea**, baina oraindik ere izena emateko aukera badago. Usurbildarrok bi bide ditugu izen-ematea burutzeko: www.usurbil.euskaraldia.eus webgunearen bitartez **eta, eskuz, izen-emate orrien bitartez**. Orri horiek **NOAUA!N, POTXOENEAN, Usurbilgo sustatzaileen bidez edo kalean** ezarriko diren **informazio-mahaietan** eskura ditzakezue. **Azaroan, informazio-mahaiak NOAUA!KO KULTURALDIAREN baitan** ezarriko dira, **honako hitzorduetan:**

Azaroak 17, larunbata, 18:00 – 19:00 bitartean, SUTEGIN.

Azaroak 18, igandea, 18:00 – 19:00 bitartean, SUTEGIN.

... eta azaroan BI EKITALDI NAGUSI.

Bi ekitaldi publiko nagusi izango dira: batetik, **TXAPAK BANATZEKO EGUNA eta** bestetik, **HASIERA-EGUNA.**

“TXAPAK BANATZEKO EGUNA”: **Azaroak 16**, egun guztian zehar.

Ekimena hasi aurretik (azaroaren 23a baino lehen), **AHOBIZI zein BELARRIPREST** modura **aritzeko izena eman duten herritarrek dagokien txapa eskuratu beharko** dute. **Horretarako, azaroak 16 ostirala** izango da **egun nagusia:**

- **Goizean zehar:** TXAPAK eskuratzeko aukera NOAUA!N edota POTXOENEAN.
- **17:00tatik aurrera** Gaztaina jatea eta TXAPAK eskuratzeko aukera frontoi inguruan.
- **19:30ean:**“Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi” antzerkia SUTEGIN. NOAUA! KULTURALDIAREN baitako ekitaldia.
- **20:00k arte:** TXAPAK eskuratzeko aukera frontoi inguruan.

“EUSKARALDIA, HASIERA-EGUNA”: **Azaroak 23, egun guztian zehar (programa berezia).**

❖ Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzue.

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza-ohiturak aldatu zituzten bikotekide batzuekin egindako ikerketarekin jarraituko dugu. Oraingoan, aldaketa eman zuten bikotekideek izan zituzten zailtasunak aipatuko ditugu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

2.1.- Nahi bezala espresatzeko mugak

Zailtasun hau elkarriketa gehienetan aipatzen da: zerbait esan bai, baina ez nahi duzun bezala, xeheetasun gutxirekin, nahi zenukeen “txispa”rik gabe, freskotasun faltarekin...

2.2.- Gaztelaniarako joera: behin eta berriz “ateratzen” zaizu

Hau ere bikote askok aipatzen dute. Euskara erabiltzen hasi, ongi moldatu, eta hala ere, egoera askotan gaztelania ateratze hori. Berezko joera horri aurre egiteak, une batzuetan nekea ere sortzen die, etengabe pentsatzeak eta hizkuntzak nahasten ibiltzeak batzuetan dakarren buruko neke sentsazioa.

2.3.- Aldatzen zailenak diren egoerak:

Badira egoera batzuk bikote batzuen aldetik *aldatzeko bereziki zail* bezala deskribatzen direnak. Ondorengo hauek dira nagusienak:

- a) Eztabaidak eta haserrealdiak.
- b) Barru barrutik sentimenduak ateratzeko.
- c) Zenbakiak adierazteko, kalkuluak egiteko.
- d) Pertsona batzuekin aldatzea zailago.

1.-Gurasoen parte-hartzea berrikuntza pedagogikoan.

Ikastolan abiatutako berrikuntza pedagogikoez orain arte egindakoari jarraipena emateko asmoz, saio bat antolatu dugu **bihar larunbata**, goizeko **10:00etatik 11:30era**, **POTXOENEAN**.

Saioan, ikastolako langileok jasotzen ari garen formazioaren baitan lantzen ari garen ikaslearen profilaraz hausnartutakoak azaltzarekin batera, zuen ikuspegiak eta ekarpenak jaso nahi genituzke.

2 galdera hauen inguruan arituko gara:

- **NOLAKO PERTSONAK HEZI NAHI DITUGU?**
- **NOLAKO GAZTEAK NAHI DITUGU IKASTOLAN AMAITZERAKO?**

Talde handian eta talde txikian jardungo dugu, hausnarketarako prestatutako dinamiken bitartez.

Saioa benetan interesgarria izango da! Horregatik, lerro hauetatik, animatu nahi zaituztegu parte hartzera! Zatoz eta zure alea jarri !!!!! Eskerrik asko!

2.-Bazkietza-kuotaren kobrantza.

Gaur, azaroko erreziboarekin batera **bazkietza-kuota** kobratuko zaizuela jakinarazi nahi dizuegu. Familia bakoitzeko **12,02 euro** dira.

3.-Jangelako hainbat ohar.

1. **Zerbitzua kudeatzen duen enpresa:** 2018/19 ikasturtean jangela zerbitzua kudeatzen duen enpresaren aldaketa egin da. Arrazoi horregatik, urrian zehar jangela zerbitzuaren ikuskatze eta jarraipena egin dugu, behar izan diren aldaketak eginez, sortu diren gora-beherak zuzentzeko. Era berean, berriki jangelako begiraleentzat formazio ikastaro bat abian jarri da eta azaroaren 19an enpresarekin beste bilera bat egingo da egindako aldaketen balorazioa egiteko eta behar diren hobekuntzekin jarraitzeko jangelaren funtzionamenduan, menuei dagokienean eta hezitzaileen denboraren antolaketari dagokionean.

Ikuskatze aldia amaituta dagoenean, zuekin guztiekin bilera egingo dugu, egindako guztiaz informatzeko eta zuen iradokizunak jasotzeko.

2. **2018/19 ikasturterako kuotak** zein izango den jakinarazten zaizue:

Bazkaldarren profila	2018-2019 ikasturtea									
	kuota	urria	azaroa	abendua	urtarila	otsaila	martxoa	apriila	maiatza	Guztira
Hilabeteka erabakiko du jangelara etortzea edo ez	H kuota	121,22 €	110,20 €	71,63 €	104,69 €	110,20 €	93,67 €	66,12 €	121,22 €	798,95 €
Asteko 5 egunak etorriko da ikasturte osoan	8-5 kuota	99,87 €	99,87 €	99,87 €	99,87 €	99,87 €	99,87 €	99,87 €	99,87 €	798,95 €
Astean 4 egun etorriko da ikasturte osoan, eta egun finkoak dira	8-4 kuota	90,66 €	90,66 €	90,66 €	90,66 €	90,66 €	90,66 €	90,66 €	90,66 €	725,29 €
Irailan eta ekainean 7€ gehienez, langile egitura eta bazkaldarren arabera	I-E kuota	7,00 €								
Menu Solteak (beste kuotak aplikatzen ez diren kasu guztiak)	S kuota	7 €								

*Oharra: kostua nola atera den jakin nahi izanez gero, eskatu idazkaritzan.

Ikasturteko menua buletinari atxikita bidaltzen da.

3. **Jangelako erritmoa errespetatzea:** Zuen seme-alabek bazkaria era lasaiagoa eta osasuntsuago batean egin dezaten, bazkal ostean dituzten ekintzetara joateko 13:20 baino lehen jangelatik atera behar ez izatea gomendatzen dizuegu.

4.-Gorputzaldien saio praktikoa gurasoekin.

LHko ikasleekin aurrera daramagun Gorputzaldiak proiektua zertan datzan erakusteko asmoz, ikastolako gurasoekin aurrera eramateko saio praktikoa bat prestatu dugu, eta bertan edozein etapatako gurasok parte hartu ahal izango du.

Saioa **abenduaren 1ean**, larunbata, izango da **10:00etatik 12:00etara ikastolako jangelan**. Parte-hartzaile kopurua egokia izan dadin, 30 pertsonako muga jarri dugu eta aukeraketa izen-emate ordenaren arabera egingo da. Horretarako bi modu izango dituzue: gorputzaldiak@udarregi.eus postara idatziz edota ikastolako idazkaritzan 943361216 telefono zenbakira deituz. **Izena emateko azken eguna azaroaren 26a**, izango da. Interesa baduzue eta proiektua barrutik ezagutu nahi baduzue animatu.

5.-Eguerdietan Agerialdeko patioaren erabilera.

Ikastolan bazkaltzen gelditzen diren ikasleen antolaketa eta zaintza egokia egite aldera, Agerialdeko patioa **13:00etatik 14:25etara jangelan bazkaltzen dutenentzat libre uztea** eskatzen dizuegu.

6.-Gela-buruak 2.0

Udarregi Ikastolako 2016-2020 Plan Estrategikoaren "Parte hartzea eta Komunikazioaren arloko helburuetan" adierazita bezala, Artezkaritza Kontseiluak Gela-Buruen sistema berria diseinatu zuen eta 2017-2018 ikasturtean indarrean jarri zen.

Hartutako konpromisoari jarraituz, ikasturtearen hasierako familia bileretan, antolaketa berriaz informatu eta Gela-Buru boluntarioak eskatu ziren. Era berean, familien interesetako gaiak jasotzeko asmoz, aukera eman zitzaizuen Albiste Buletinaren bidez zuen ekarpenak egiteko. Ekarpenetarako epea pasata, gai-proposamen bakarra jaso dugu.

Hona boluntarioen zerrenda eta egondako gai-proposamena

2018-2019

GELA-BURU BOLUNTARIOAK

HH	Ainhoa Uribecheverria
	Naiara Fernandez
	Karmele Salsamendi
LH	Amaia Artola
	Maria Fernandez
DBH	Gabi Valin
	Begoña Izeta

GAI-EKARPENA

HH	Gabon kantetako abestien letren inguruko hausnarketa: kutsu erlijiosoa duten abestiak abestu beharko al genituzke?
----	---

DBHko gela-buruek dei egiten dizuete **DBHko gurasoei, azaroaren 26an (astelehena) arratsaldeko 17:00etan** antolatu duten bilerara.

Tokia: Gernika Ibilbideko 11. eraikinean (eraikin gorrian).

Zuen asistentzia konfirmatzea eskatzen da, **idazkaritzara deituz edota Begoñarekin nahiz Gabirekin harremanetan** jarritz.

Halaber, **hiruhilabetea amaitu aurretik, Zuzendaritza Taldea eta Artezkaritza Kontseiluko Lehendakariarekin batera, bilera batera** deituak izango zarete **gela-buru guztiak** eta funtzionamenduan aurrera egiten dugun heinean, informatuak izango zarete Web orriaren eta Albiste Buletinaren bidez.

Era berean, adierazi nahi dizuegu, prozesuan zehar sortutako informazio, txosten, ohar nahiz bilera-akta, ikastolako sarean jasoko dugula. Norbaitek dokumentu jakinen bat eskuratzeko interesa izanez gero, harremanetan jar daiteke artezkaritza@udarregi.eus helbidean mezua utziz.

7.-Iparraldeko ikastolen-egutegiak salgai.

Iparraldeko ikastolek, egin ohi duten bezala, 2019ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako eta Haur Eskolako idazkaritzetan** egongo dira **eskuragarri**. Bakoitzaren salneurria **4 €**.

8.-Errigorako saski baten zozketa.

Ikastoletako sare sozialetan, facebook eta twitter, lagunak direnen artean, Errigorako otarra zozketatuko da.

OHARRAK ETAPAKA



HE

1.-Gure seme-alaben elikaduraren inguruko zalantzak, hitzaldia.

Hitz-aho guraso elkarteak **2 urtetik LH 4. Mailara arteko gurasoei zuzenduta**, ume eta haurren elikaduraren eguneroko zalantzen inguruko hitzaldia antolatu du.

Dituzuen **kontsulta edo zalantzak, aldez aurretik**, alazneagirrezabalaga@gmail.com helbide elektronikoan edo www.alaznedietista.com webguneko kontaktuan **egin** ditzakezue.

HIZLARIA: Alazne Agirrezabalaga, dietista-nutrizionista.

NOIZ: azaroak 27, asteartea.

ORDUA: 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.



HH

1.-Gure seme-alaben elikaduraren inguruko zalantzak, hitzaldia.

Hitz-aho guraso elkarteak **2 urtetik LH 4. Mailara arteko gurasoei zuzenduta**, ume eta haurren elikaduraren eguneroko zalantzen inguruko hitzaldia antolatu du.

Dituzuen **kontsulta edo zalantzak, aldez aurretik**, alazneagirrezabalaga@gmail.com helbide elektronikoan edo www.alaznedietista.com webguneko kontaktuan **egin** ditzakezue.

HIZLARIA: Alazne Agirrezabalaga, dietista-nutrizionista.

NOIZ: azaroak 27, asteartea.

ORDUA: 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.



LH

1.-Robotika LH 4ko, LH 5eko eta LH 6ko ikasleei zuzenduta.

Ikastolen elkarteko aisialdi-taldeak 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako udaleku irekiak antolatu ditu Gabonetako oporretan.

Udaleku ireki horren **helburuak** honakoak dira: ondo pasatzea, pentsaera konputazionala lantzea, teknologia berriak euskaraz bitzeko aukera ematea, teknologia berrien bidez sormena sustatzea, interes bereko gazteen arteko komunikazioa sustatu eta programazioa eta robotikaren mundua ezagutzea.

Jarduerak: blokeko programazioaren oinarriak ezagutu.

Hardwarearekin lan egin.

Oinarrizko zirkuitu elektronikoaren ezagutzak landu.

Taldeka, proiektu bat garatu (proiektua gazteek aukeratuko duke)

Proiektuen aurkezpena egin.

*Gutxieneko taldea 10eko izango da.

Noiz eta non: abenduaren 26tik 28ra edo urtarrilaren 2tik 4ra, goizeko 9:00etatik 13:00era, ikastolan.

Izen-ematea: abenduaren 12a bitarte ikastolako idazkaritzan.

Prezioa: ikastolako ikasleentzat 70€.

2.-LH 2B-ko familiei oharra.

Jakinarazi nahi dizuegu Jaione Rekondoren ordezkapena Xabi Sancho ari dela egiten eta oraindik aste batzuetan luzatuko dela.

3.-Gure seme-alaben elikaduraren inguruko zalantzak, hitzaldia.

Hitz-aho guraso elkarteak **2 urtetik LH 4. Mailara arteko gurasoei zuzenduta**, ume eta haurren elikaduraren eguneroko zalantzen inguruko hitzaldia antolatu du.

Dituzuen **kontsulta edo zalantzak, aldez aurretik**, alazneagirrezabalaga@gmail.com helbide elektronikoan edo www.alaznedietista.com webguneko kontaktuan **egin** ditzakezue.

HIZLARIA: Alazne Agirrezabalaga, dietista-nutrizionista.

NOIZ: azaroak 27, asteartea.

ORDUA: 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.

4.-Gazteen elikadurak gurasoen esku egoteari uzten dion garaia, hitzaldia.

Hitz-aho guraso elkarteak **LH 5., 6. eta DBH mailako gurasoei zuzenduta** hitzaldia antolatu du:

Gazteen elikadurak gurasoen esku egoteari uzten dion garaian, zer egin dezakegu euren etorkizuneko elikadura-ohiturak babesteko?

Dituzuen **kontsulta edo zalantzak, aldez aurretik**, alazneagirrezabalaga@gmail.com helbide elektronikoan edo www.alaznedietista.com webguneko kontaktuan **egin** ditzakezue.

HIZLARIA: Alazne Agirrezabalaga, dietista-nutrizionista.

DATA ETA ORDUA: azaroak 28, asteazkena, 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.



DBH

1.-Gazteen elikadurak gurasoen esku egoteari uzten dion garaia, hitzaldia.

Hitz-aho guraso elkarteak **LH 5., 6. eta DBH mailako gurasoei zuzenduta** hitzaldia antolatu du:

Gazteen elikadura gurasoen esku egoteari uzten dion garaia, zer egin dezakegu euren etorkizunerako elikadura-ohiturak babesteko?

Dituzuen **kontsulta edo zalantzak, aldez aurretik**, alazneagirrezabalaga@gmail.com helbide elektronikoan edo www.alaznedietista.com webguneko kontaktuan **egin** ditzakezue.

HIZLARIA: Alazne Agirrezabalaga, dietista-nutrizionista.

NOIZ: azaroak 28, asteazkena.

ORDUA: 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.

2.-DBHko autobus geltokiaren leku-aldaketa.

Datorren astelehenetik aurrera, azaroak 19, **DBHko ikasleen autobus-geltokia aldatu egingo da**: zezen-plaza azpialdean izan beharrean, **Agerialde eraikinaren sarreran** izango da HHko eta LHko ikasleekin batera. 10 minutu itxarongo dituzte, gehienez.

3.-Eskola-osasun programa: Difteria-Tetanosaren aurkako txertoa.

DBH 4. mailako ikasleei Difteria-Tetanosaren aurkako txertoa jarriko zaie Ikastolan hurrengo egunetan eskola-osasun programaren barruan. Horretarako etxera bidalitako txertatzeko baimen-gutuna gurasoek edo tutoreek sinatuta, ikastolara ekarri behar beharko da,

4.-DBH 2ko ikasleen irteera.

Datorren **ostiralean**, azaroak 23, DBH 2ko ikasleak **Amaieur**-era egingo dute irteera.